

Zamudio da berriz biztanleko BPG handiena duen udalerria Euskal AEn, eta ondoren daude Zierbena eta Olaberria

Biztanleko BPG handiena duten hamar udalerrietatik zazpik izaera industrial nabarmena dute

Eustatek landutako datuen arabera, Bizkaiko Zamudioko udalerriak du, berriz ere, 2018an, Euskal AEko biztanleko Barne Produktu Gordinik altuena. Bigarren eta hirugarren, berriz, daude Zierbena, Bizkaian ere, eta Olaberria, Gipuzkoan. Araban Berantevilla da biztanleko BPG handiena duen udalerria, Euskal AEn zazpigarren.

Biztanleko BPG altuena (eurotan) izan duten Euskal AEko udalerriak eta horien banaketa 4 sektoretan (%). 2018

BIZTANLEKO BPG			SEKTOREKAKO BANAKETA (%)			
LURRALDE EREMUA	Biztanleko BPG	INDIZEA ¹	NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA ARRANTZA	INDUSTRIA ETA ENERGIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
Euskal AE	35.201	100	0,9	24,1	5,8	69,2
Araba/Álava	37.687	107	1,8	32,3	4,8	61,1
Bizkaia	34.043	97	0,8	19,1	5,9	74,3
Gipuzkoa	35.915	102	0,6	27,8	6,2	65,4
Vitoria-Gasteiz	36.268	103	0,2	26,5	4,9	68,3
Bilbao	35.282	100	0,1	4,1	5,0	90,8
Donostia / San Sebastián	41.993	119	0,0	4,7	6,7	88,6
1 Zamudio	450.262	1.279	0,1	44,7	4,4	50,8
2 Zierbena	281.801	801	0,4	79,0	0,8	19,7
3 Olaberria	274.922	781	0,2	81,4	0,3	18,0
4 Ajangiz	227.566	646	0,8	83,2	0,3	15,7
5 Loiu	225.511	641	0,1	23,5	5,0	71,4
6 Arama	164.951	469	0,4	78,1	2,2	19,3
7 Berantevilla	160.643	456	4,4	75,1	3,7	16,8
8 Aduna	149.104	424	0,5	62,8	2,4	34,3
9 Legutio	148.080	421	0,6	73,9	1,4	24,2
10 Derio	141.607	402	0,2	12,6	3,9	83,4

¹Kokalekua, Euskal AEko balioarekin alderatuta (=100)

Iturria: Eustat. Udal BPG

Biztanleko BPGren rankingean lehena den Zamudioko enpresa-ehuna antzera banatuta dago sektore *industrialaren* (% 44,7) eta *zerbitzuen* (% 50,8) artean. Hori gertatzen da, batez ere, udalerrian manufaktura-enpresa ugari daudelako (bereziki *Garraio-materialaren* ekoizpenari lotutakoak), baita industriari oso lotutako *Zerbitzu teknologikoetako* enpresak ere.

Zierbena bigarren postuan dago, eta hazkunde garrantzitsua izan du 2017. urtearekin alderatuta, batez ere *Energia elektrikoaren ekoizpen eta banaketa* sektorearen Balio Erantsi Gordinak gora egin duelako; horren ondorioz, *Industria eta Energia* sektorea % 79,0 izan da udalerriko jarduera osoan. Olaberriaren kasuan ere industria-izaera nabarmena du (% 81,4), eta manufaktura-zatia gailentzen da, bereziki *Siderurgia* adarra eta *Erabilera orokorreko makineriaren* produkzioa.

Udal BPG handiena duten udalerrien artean, eta industria-jarduera nagusi dutenen aurrekoak ez bezala, Loiu eta Derio ere ageri dira, zeinetan *Zerbitzuen* sektoreak baitu


pisurik handiena; % 71,4 Loiu, aireportu-jarduerari *Atxikitako zerbitzuei* esker, besteak beste, eta % 83,4 Derion, non oso garrantzi handitakoak diren *Jarduera profesionalak* eta *Informazio eta komunikazioetako* zerbitzuak.

Euskal AEko hiru hiriburuetan zerbitzu-jarduerak dira nagusi, hiru Lurraldeen guztizkoan bezala

Hiriburuei dagokienez, Donostiak 2018an Euskal AEko biztanleko BPGrekiko posizio erlatibo altuena erakutsi du, 119ko indizea, hau da, bere biztanleko BPG Autonomia Erkidegoko batezbestekoa baino % 19,0 handiagoa da. Gasteizen 103ko indizea dago, eta Bilbon, berriz, 100ekoa, Euskal AEko batezbestekoa.

Euskal AEko hiru hiriburuetan *zerbitzuetako* jarduerak dira nagusi, eta horien artean nabarmentzekoak dira *Higiezin Jarduerak*, *Ostalaritza* eta *Administrazio Publikoek* eskaintzen dituzten zerbitzuak. *Zerbitzuen* sektoreak jarduera ekonomiko osoaren % 90,0 inguru hartzen du, bai Bilbon (% 90,8), bai Donostian (% 88,6), baina Gasteizen zertxobait txikiagoa da (% 68,3).

Industriaren eta zerbitzuen sektoreen banaketa (%) lurralde historikoetan eta haien hiriburuetan. 2018



Iturria: Eustat. Udal BPG

Gasteizen, *Industriaren* sektoreak pisu handia du (% 26,5) beste bi hiriburuaren aldean, eta Euskal AEko batezbestekoa (% 24,1) baino handiagoa bada, gainera. Arabako hiriburuan *Industriaren* sektoreak duen pisua *Automobilgintzan* eta *Kautxuzko Produktuen* fabrikazioan oinarritzen da. *Industriaren* sektoreak, ordea, pisu txikiagoa du Donostian (% 4,7) eta Bilbon (% 4,1).

Biztanleko BPGren balio handienak dituzten eskualdeak Araban daude

Eskualdeka, Arabako lurraldeak Euskal AEko biztanleko BPG baliorik handienak dituzten hiru eskualdeak ditu, eta Arabako Errioxa da buru, 65.495 euroko biztanleko BPG baitu.

Eskualde horren barruan, zeinen biztanleko BPG Euskal AEko batezbestekoa baino % 86,1 handiagoa den, Laguardia, Eskuernaga, Samaniego eta Eltziego nabarmentzen dira, guztiak ere *ardogintza-sektorearekin* lotutako *industriako* jarduerarekin zerikusia dutenak. Añanak eta Gorbeialdeak dituzte lehenengo hiru eskualde-postuak osatzen: biztanleko BPG 51.510 eta 48.531 eurokoa da, hurrenez hurren, beste bi horietan. Arabako Errioxan bezala, bi eskualdeetan Balio Erantsiaren % 55,0 baino gehiago *industriako* jardueretan oinarritzen da.

Laugarren eta bosgarren, hurrenez hurren, Durangaldea agertzen da Bizkaian, 41.809 euroko biztanleko BPGrekin, eta Debagoiena Gipuzkoan (39.176 euro), biak ere *industriako* eta *zerbitzuetako* jardueren arteko banaketa orekatuarekin.

Bestalde, eskualdeak non neurri handiagoan gailentzen diren *zerbitzuetako* jarduerak dira Bilbo Handia (non Balio Erantsi Gordinaren % 79,1 *zerbitzuak* diren), Donostialdea (% 77,5), Bidasoa Beherea (% 74,3) eta Enkartzioak (% 73,3), guztiak ere, halaber, Euskal AEko batezbestekoaren gainetik, non *zerbitzuak* % 69,2 izan baitira 2018an.

insertaHC_1985

Ohar metodologikoa: Datuak hobeki interpretatzeko, **Udal BPG** eta **Udal-errenta** bereizi behar dira; BPG ekoizpenari, aberastasunaren sorrerari lotuta doa, eta ekoizpen-establezimendu garrantzitsuak dituzten udalerrietan kontzentratzen da. Errenta, aldiz, pertsonen eta haien bizilekuari lotuta dago.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62